

# DONOSTIAN IRUGARREN ARZAIGOKIA

1828 garrengo, igande inauteri goizian

## MARCHA

Atozte arzayak, ariñ atozte  
 Guazen guztiyok festara  
 Aita Josepe buru degula  
 Donostiako plazara:  
 Kaletarrai eskaintzen gatoz  
 Amoriozko doaya,  
 Soñu ederrak, dantza politak  
 Kanta euskarazko eztiyak.

Greziyatikan etorri eta  
 Amaika garren urtean  
 Irugarrena degu arzayak  
 Donostiako kalean:  
 Inauterian soñubarekin  
 Isildu gabe kantatzen,  
 Gabaz ta egunaz beti dantzan ta  
 Beñere ez gera nekatzen.

## ARZAI KANTA

Eman genuben itza  
 Lenago bi aldiz  
 Etorriko giñala  
 Iñoiz edo berriz:  
 Irugarren aldiyan  
 Aurten emen gera  
 Donostiar maitiak  
 Zubek ikustera.

Oraiñ amaika urte  
 Eta oraiñ zortzi  
 Donostiya genduben  
 Lenago ikusi:  
 Ordutik oneraño  
 Ez genduben uste  
 Aurreratu zirala  
 Lanak onenbeste.

Etorri geranian  
 Plaza kantoyera  
 Dira pozez malkoak  
 Agertu begira:  
 Esan nayagatikan  
 Da esan eziña  
 Gure biotzak artu  
 Duten atsegiña.

Berrirotik egiten  
 Zauden Donostiya  
 Ederra bezelašen  
 Zerade alaya:  
 Guztiz maitagarriya  
 Zedorren jendia  
 Eziñ izan diteke  
 Dan baño obia.

JOSÉ VICENTE ECHEGARAY.